




Eraikuntzak %5,2 areagotu zuen ekoizpena

Eraikuntzaren ekoizpena
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko eraikuntzaren sektoreko jarduera %5,2 hazi zen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Bilakaera hori eraikinen atalean (%5,7) zein obra zibilean (%2,1) izandako gorakadak eragin zuen. Aitzitik, enpleguak %0,3ko jaitsiera apala izan zuen.

Etxebizitzaren prezioa %1,4 garestitu zen

Etxebizitza libreen batez besteko balio tasatua
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Euroak/m²



Iturria: Garraioko eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioa.

Etxebizitzaren prezioa %1,4 igo zen 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Hala, Etxebizitza Ministerioaren datuen arabera, pandemiaren aldi- an izandako jaitsiera izan ezik, etxebizitzaren balioa etengabe handitu da 2018tik. Hala ere, 2008ko krisiaren urteetan lortutako balioetara iristeko tarte handia dago oraindik.



Txikizkako merkataritza %5,4 handitu zen

Txikizkako merkataritza EAEn
Urte bakoitzeko apirila. Indizea




Iturria: INE.

INEk berriki argitaratutako datuen arabera, **EAEko txikizkako merkataritzaren salmentak %5,4 hazi ziren apirilean, aurreko urteko hil beraren aldean.** Horrela, aurreko aldie-tan lortutako maila nabarmen gain-ditu da. Bestalde, txikizkako merka-taritzako enpleguak aldakuntza tasa positiboak izaten jarraitu zuen, nahiz eta txikia izan (%0,1).

Estatuko KPIa %3,6an kokatu da maiatzean

Estatuko KPIa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

INEk argitaratu duen adierazle au-rreratuaren arabera, **maiatzean KPIa %3,6an kokatu zen, apirileko datua baino hiru hamarren gora-go.** Bilakaera hori elektrizitatearen prezioen igoerak eragin zuen batez ere, 2023ko maiatzean izandako jai-tsieraren aldean. Halaber, azpiko inflazioa %2,9tik %3,ora igo zen, eta 2023ko abuztuan hasitako behe-ranzko bideari utzi zion.